



2009KO AZAROAREN 12KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko azaroaren hamabian, iluntzeko zazpi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Angel Hernandez Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamen-na irakurri dira.

Gaia eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonalaren gastuak	194.955,59 €
VI	Inbertsio errealak	27.105,03 €
IX	Finantza pasiboak	213.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		435.060,62 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VII	Kapital transferentziak	33.000,00 €
VIII	Aktibo finantzarioak	402.060,62 €
GUZTIRA		435.060,62 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

II.- TAXIEN HIRI TARIFEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2010 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKiren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Datorren urterako proposamenak zera aurrikusten du: oraingo tarifak bere horretan uztea baina tarifa berri bat sortzea, 5 zenbaki dun tarifa, astebukaeratako gauetan aplikatu litzakena.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2009)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,0841	0,9655	18,4414	3,0841	1,5398	28,9839

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:



1.- 2010 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2010)			
Kontzeptu Tarifa	Bandera jaistea	EGINDAKO KILOMETROA	ZAIN EGINDAKO ORDUA
TARIFA 1*	3,0841	0,9655	18,4414
TARIFA2**	3,0841	1,5398	28,9839
TARIFA5***	3,8551	1,9247	36,2298

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau lanegunetan astelehenetik ostegunera 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan eta halaber larunbatetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

*** Tarifa hau ostiraleko 22:00etatik larunbateko 07:00etara, larunbateko 22:00etatik igandeko 07:00etara aplikatuko da. Halaber jaiegun edo patroï jai bezperako 22:00etatik jai egun edo patroï jai eguneko 07:00etara, eta jaieguneko edo patroï jaieko 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara.

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

III.- ORDENANTZA FISKALAK.-

Alkateak esaten du datorren urterako ordenantza fiskalen aldaketa planteatzerakoan erizpide nagusia zergak eta tasak ez igotzea dela. Esaten du baita ere erizpide nagusi honen salbuespena zaborbilketagatiko tasan dagoela eta hau zaborbilketan planteatzen den modelo aldaketaren ondorioa dela. Esaten du baita ere, berez modelo aldaketa honek %30eko igoerak daramatzala berarekin baina zorionez Sasieta oraindik irekita egonik eta San Markos Mankomunitateko zaborrak Sasietara ekartzen ari direnez, aukera ematen digula oraingoz %8ko igoera aplikatuta nahikoa izatea.

Bestalde hainbat egokitzapen egitea planteatzen da: nitxoetan intzineratutako gorpuak sartzeko dauden nitxoetan bi tarifa jartzea, gorpu bat edo bi sartzearen arabera; kiroldegiko zerbitzuen tarifetan zerbitzu berrien tarifak sartzea, ikastaroen tarifetan hainbat egokitzapen; ludotekaren tarifak; Areriaren erabileraren tarifak; gainbalioaren zergan %75eko hobaria aurrikustea ohiko etxebizitzaren herentzi bidezko transmisioan.

Eta guzti hau hazienda batzordean egindako azalpenean jasotakoaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Akordio honen azalpenean aipatutako eta bere espedientean aurkitzen diren ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.

2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogei hamaik lanegunetako denboraldian.

3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

